

LIBURUTEGI ZERBITZUA

Institutuan bi liburutegi daude:

+ Gorosabel izeneko eraikinean dagoena. Nahiz eta ikasleak 9:00etan sartu, goizeko 8:30etan irekitzen da (neguan, garraiatutako ikasleei babeslekua ematearren). Baita ere patio garaian, irakurtzeko edo lan egiteko.

+ Orixeko erakinean dagoena. Honako ordutegia du: 9:00etatik 14:00etara (astelehen, asteartea eta ostegunetan) eta 9:00etatik 13:00etara asteazken eta ostiraletan.

Liburutegiak ikasleek zein irakasleek erabiltzen dituzte. Ia 9.000 liburu daude eta institutuan ematen diren irakasgaietan azal daitezkeen gai gehienak landu daitezke beraiekin. Internet ere erabil daiteke liburutegietan eta, maiz, bileretarako erabiltzen dira.

Helburu orokorrak

- Ikasleak liburu, entziklopedia eta hiztegiak erabiltzen ohitzea, baita irakurtzeko zaletasuna beraian sortzea ere.
- Liburutegietan dagoen informazioa bere interesetarako antolatzea eta bere ikasketetan aplikatzea.
- Honelako lekuetan izan behar duten jokaeran sakontzea.

Eskaintza honen aurrean **ZUEN ALDETIK ERANTZUN JATOR eta LEIALA ESPERO DUGU.**

1. Liburutegi zerbitzua Institutuan kokatzen da. Beraz, funtzionatzeko momentuan Institutuan dauden arauak errespetatu behar dira.

2. Zerbitzu honen ARDURADUNAK:

ANA GRACIA eta LURDES IBAÑEZ

3. LIBURU MAILEGUEN ZERBITZUA:

Irakurzaletasuna sustatzeko, Liburutegian, liburu sail handi bat eskuragarri dago. Beraz, liburuak har daitezke, baita etxera eraman ere, Liburu Maileguen Zerbitzuan markatuak dauden pausoak jarraituz.

Liburuak hartutako tokian utziko dira, eta non zeuden ziur gogoratzen ez denean, Arduradunen mahaiaren gainean utziko dira.

4. LAN PERTSONALERAKO EREMUA:

Markatutako ordutegian lan pertsonalak edota etxerako lanak bertan egin daitezke, baita irakurketa pertsonala egin ere.

Liburutegian 15 ordenagailu daude ikasleen eskura, lanak egin ahal izateko. Edozein liburutegitan ohiko den bezala, lana edo irakurketa egiten den bitartean isiltasun osoa mantendu behar da.

5. TALDEKO LANAK:

Taldeko lanaren bat egin nahi izanez gero, Liburutegiko Arduradunari egin nahi dena azalduko zaio, eta berak baimena ematen badu, taldeko lan hori bertan egiteko aukera izango da. Kasu honetan isiltasuna mantentzea ezinezkoa da; hala ere taldekideen arteko elkarrizketan behar direnean errespetuzko tonu baxua erabiliko da, lan giroa bermatu ahal izateko.

6. ZIGORTUTA DAUDENAK:

Irakasleren batek norbait zigortzen badu eta Liburutegiko ordutegian Liburutegira bidaltzen badu, zigortutako ikasleak egin behar duen lana zehaztua eraman behar du.

7. IKASLEEI ZUZENDUTATUTAKO OHARRAK: **(ORIXE)**

- Klase orduetan ezin da irakaslerik gabe liburutegian egon.
- Ikasgai bakar batzuk dituzten ikasleek aldiz, liburutegian egoteko baimena dute klaserik ez dutenean soilik.
- Zerbait kontsultatu nahi denean, atsedenaldietan egin behar da.
- Klase orduetan ikasle bat liburutegian baldin badago, justifikatu gabeko falta jarriko zaio, eta beharra ikusiz gero, bere arduradunekin (gurasoekin, tutorearekin) kontaktuan jarriko gara.

8. IRAKASLEEI ZUZENDUTATUTAKO OHARRAK:

- Ikasle-talderen batekin liburutegira joan nahi denean, eta liburutegiko arduraduna ez badago, arduradunaren mahai gainean irakasleak utziko du, paper batean apuntatu, zer den hartu egin dena eta nork hartu duen.
- Irakasleek liburutegiko arduradunarekin adostu beharko dute, bai liburutegitik liburuak ateratzeko, baita mailegatzeko garaian ere.